

JAGOLEA

Erriagana begira nago,
mendi, ibai ta urira,
biziaren inguru guztiak
deika dagoz Aberrira.

Egiaren otsa entzun nai dot
mendi, bai ta uritik,
ustelkeririk gabeko itza
erri-egal guztietatik.

Bizia ez da zorakeria.
Bizi sena astuna da,
argi, arrizko izan bear dau
egi-senak eraginda.

Gizonen semea ez da jaio
zapaldua izateko,
aske izateko jaio nintzan
erri legez biziteko.

Lurrean ogia dut janari
gosearen asegarri,
ogi utsa ez dozu izanen
gogoaren bizigarri.

Maltzurkeriak bizi dabiltzaz
nunnai aldi guztietan,
«erre» suzko itzak entzun nitun
gizon gaizto agoetan.

Erre izan zan gizon itzetan
txarkeriaren soiñua,
sua agertu zan errietan
zitalkeri gorrotua.

Zenbat abots gaizto entzun nitun,
len, gaztea nintzelarik,
kristau etxeak austu eskatzen
demagogiz usteldurik.

Gudariak ikusi nituan
mutil garbi, bulartsuak,
euskal bizia, zintzo, jagoten
erritar adoretuak.

Gaur be, ba-ditu Euskalerrriak,
aldiko mintzolariak,
gizadi onek maite ez daben
joko oiukalariak.

Gizon, sinismen, bizibidea,
erriak ditun sustraiak,
nire jaiotz, bizitz ta azpenak
ortxe, daukaz oiñarriak.

Doakabe izanen gizona
erri ta sinismen gabe,
lana, ogia ta Egillea
ditut lagun ta jabe.

Gudaria izanen gaur ere,
Euzkadiren jagolea,
atxur, fede, otoi, ekin mailluz
euskaldunen errotea.

PAULIN